# [Beasain agenda] 2010eko maiatza


Beasainen erosi
BAREAK


Paper birziklatuan egina 3680-010 L.G. SS-1284-2008

### 2 igandea
11:00etan.- Pilota txapelketa herrikoia. Gernika pasealekuko frontoian.

### 6 osteguna
18:00etan.- Bertso saioa: Ahozkotasun jaialdia. Usurbe Antzokian.

### 7 ostirala
18:30ean.- Loinatz Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Gernika pasealekuko frontoian.

20:00/22:15 Antzerki Garaia: "Cocidito madrileño 2". Usurbe Antzokian.

### 8 larunbata
19:30ean.- Loinatz Musika Eskolakoen Kantaldia. Gernika pasealekuko frontoian.

### 9 igandea
08:00etan.- Mendi irteera: Sagastarrira. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

11:45ean.- Dantzari Txiki Eguna. Irteera Dolareatik. Antolatzailea: Aurtzaka Dantza Taldea.

### 11 asteartea
18:00etan.- Bertso saioa: Ahozkotasun jaialdia. Usurbe Antzokian.

### 13 osteguna
17:00etan.- Loinatz Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Gernika pasealekuko frontoian.

## MAIATZAREN 14tik 23ra LOINATZ JAIAK

### 29 larunbata
08:00etan.- Mendi irteera: Akanpada. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

### 30 igandea
08:00etan.- Mendi irteera: San Donatora. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

## ERAKUSKETAK
Lanegunetan: 19:00-21:00 Jaiegunetan: 12:00-14:00 / 19:00-21:00

### apirilaren 30etik maiatzaren 9ra
Pintura Erakusketa: Jose Manuel Mata eta Dolores Marina
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

### maiatzaren 15etik 23ra
2010eko Loinatz jaietako kartela aukeratzeko lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa.
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

### maiatzaren 15etik 30era
"Beasaingo Hiria" izeneko Argazki-lehiaketaren erakusketa.
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Kultura informazio gehiago: www.beasain.net



## Dantzari Txiki Eguna, Aurtzakaren eskutik

Maiatzaren 9an, Dantzari Txiki Eguna egingo da Beasainen. Aurten, Aurtzakaz gain, beste hamar taldek hartuko dute parte. Besteak beste, Ataun, Legorreta, Urretxu, Dima edota Otsagikoak. Goizean kalejira egingo dute guztiek batera, hainbat dantza aurkezteko hiru geldialdi eginez. Irteera Dolareatik 11:45ean izango da. Eguerdian, alardea egingo dute eta bazkaldu ostean, dantzaldia eskainiko dute Gernika pasealekuko frontoian 16:30ean.

## Servicio de renovación del DNI

Desde la Subdelegación de Gobierno se ha comunicado al Ayuntamiento de Beasain que el servicio rural de renovación del DNI queda suspendido. En adelante, toda persona que tenga necesidad de este servicio, deberá acudir a Donostia. Previamente deberá solicitar cita bien por Internet entrando en la página www.citapreviadni.es o llamando al 902 24 73 64.

## ONGIZATE zerbitzua, zenbakitan:
## 2009ko datuak

| | |
|---|---|
| 188 | pertsonak mendekotasun balorazioa eskatu dute. |
| 126 | pertsonak mendekotasunagatik prestazio ekonomikoa eskatu dute. |
| 119 | familiak larrialdietarako laguntzak jaso dituzte. |
| 108 | pertsonak teleasistentzia eduki dute. |
| 105 | familiak mantenimendurako laguntza jaso dute. |
| 101 | familiak etxez etxeko laguntza izan dute. |
| 72 | pertsonak laguntza teknikoak eskatu dituzte. |
| 26 | adineko pertsonak egoitzan aldi bateko egonaldia eskatu dute. |

### ESTANCIAS TEMPORALES EN RESIDENCIAS

El plazo de solicitud para estancias temporales en residencias durante el verano acaba el 14 de mayo / *Udan egoitzetan aldi baterako egonaldiak eskatzeko epea maiatzaren 14an amaituko da.*






# Beasain egunez egun
BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2010eko maiatza 19
Beasaingo Udala


# Musika Eskola pil-pilean


4 MERKATARITZA Bareak: "Beasaingo merkatariok aholkuak oparitzen ditugu".
8 LOINATZ JAIAK Egutegiko egunik onenak badatoz.
8 MUSIKA KEA taldeak bere lehen diskoa aurkeztuko du festetan.

# Beasain irudítan...


Karobi parkea


Zaldizurreta

Udaberriaren etorrerarekin batera, Beasain kolorez bete da. Eta usain gozoz.


Oriamendi kalea


Barrandain errotonda


Gernika pasealekua

Herriko parke eta lorategiak ikuskizun bilakatu dira. Irudi hauei gainbegirada bat bota besterik ez dago, horretaz ohartzeko.


Mariarats kalea


Trenbide kalea



Alkatearen txokoa...

## ASKO BAINO HOBEA


Patxi Plazaola

Maiatzeko lorea, ezer baino hobea" dio gure egutegiak. Guk "asko baino hobea" esan beharko dugu Loinatz jaiak ospatzeko aukera izango baitugu.

Jaietako egitaraua laster jasoko duzue etxean, beraz eta ezer baino lehen, jai zoriontsuak opa dizkizuet herritar guztioi.

Loinatz jaien aitzakian, handik eta hemendik, bertan partehartze zuzena dutenekin osatu dugu ale hau.

Herritar guztion artean sostengua ematen diogun Udal Musika Eskola adibidez. Ume, gazte eta heldu asko ari da bertan beren musikarako doaiak lantzen, gehienentzat afizioa den gutxi batzuen ofizioa.

Bere eskaintza zabalean oraindik ikasleak ere hartuko lituzke Musika Eskolak. Aukera asko dugu beraien emanaldietaz gozatzeko. Bere babesean sortu diren hainbat talde kalean dituzu herriko festak alaituz.

Azken boladan indarberritu nahian dabilen Bareak Merkatari elkarteak ere zabaldu dizkigu ateak beraien ikuspegia ezagutu dezagun.

Kide berriak eskuzabalik hartuko lituzkete eta buru belarri ekimen ezberdinak gauzatuz jendea berera erakarri nahian dabiltza eta ondo baino hobeto agertzen duten kezken artean, erronkak nagusitzen dira lehiakortasunaren aurrean.

Udalak ere jakin badaki hirigintza lanak txukun gauzatuz herria bera pizten dela eta ondorioz, bertako merkataria eta produktua indartu eta berritu egiten direla. Horren adibide izatea espero dugu Kale Nagusiaren eta inguruaren berritzea. Barrendaindik Igartzara sortu den zabalguneak herriari eman dion erakargarritasuna emango al dio oineztatzeak!

Ongizate Sailaren, 2009. urteari dagozkion hamaika zenbaki ere ikusiko duzu ale honetan eta beraien lan-eskerga zenbaki soiletan azaltzen bada ere, pertsona bera bere osotasunean da zenbaki guzti horien muina. Askotan konponbide gabeko arazo pertsonalak, familiarrak edo ekonomikoak dituzten pertsonekin lan egiten dute Ongizate Saileko laguntzaileek, hainbat ezintasuni aurre eginez. Lehentasunen artean, sail hau indartzea du helburu Udalak.

El mes de mayo nos trae consigo las fiestas del pueblo, los Loinaces. En primer lugar unas felices fiestas a todos los beasaindarras y a los muchos que nos visitarán esos días.

En este número de la revista se mencionan a algunas personas y entidades que con su esfuerzo y entusiasmo colaboran en las actividades de las fiestas. Hacen posible el disfrute festivo.

Los alumn@s de la Musika Eskola participan también activamente en las fiestas. Llegado el período de matrícula en la Musika Eskola se quiere captar nuevos alumn@s. En este número de la revista se pretende abrir las puertas de la misma a todos los ciudadanos, en particular a los jóven@s para ofrecerles una serie de oportunidades para su formación musical.

Por otra parte, en este número de la revista, la Asociación de Comerciantes Bareak nos muestra el esfuerzo asociativo que está realizando para impulsar el comercio cercano y de calidad en el municipio. Para el Ayuntamiento es importante contar con una asociación cada vez más consolidada como interlocutor de una actividad que aporta riqueza económica, genera empleo y enriquece el tejido social del municipio. En este sentido muchas de las actuaciones urbanísticas y culturales que se promueven desde el Ayuntamiento tienen incidencia directa en la actividad comercial.

En la memoria del año 2009 que presenta el Departamento de Bienestar Social

Además de unos números más o menos fríos nos ofrece el rostro de personas y colectivos concretos que tienen dificultades .El trabajo de las asistentas sociales es duro y difícil. A pesar de la impotencia que puedan sentir ante la gravedad de las situaciones personales y familiares su trabajo es inestimable y prioritario para el Ayuntamiento.

PRAKTIKAK

## Autoeskoletan ere euskaraz


**Zorione Goitia**
Goitia autoeskola

"Aspaldi hasi ginen Jaurlaritzarekin itzulpen batzuk egiten eta lantalde bat osatu genuen, baina dinamika hura etenda geratu zen, Aeol editoriala gurekin harremanetan jarri zen arte. Katalenez eta galegoz lan asko egina zuen eta euskaraz materiala itzultzeko aukera eskaini zigun eta bera da autoeskoletako materiala euskaraz lantzen duen editorial bakarra. Esan beharra dago bazela ordua, eta jendeak oso ondo hartu du. Gure aldetik oso pozik gaude eta erabat irekita horrelako proiektuak bultzatzera. Egia da paperean ez dagoela euskarazko materialik baina arazo handiegia ere ez da, zeren gaur egun teknologia berriak erabiltzera ohituak gaude".


**Joxelu Iturrioz**
Igartza autoeskola

"Duela urte eta erdi inguru hasi ginen euskarazko materiala lantzeko aukera aztertzen. Hori bai, ordenagailurako dago prestatuta programa eta ez dugu paperean euskarazko material hori, eta uda parteari begira, nahiko genuke paperean ere izatea. Edonola ere, editorialak ez du eskaintza hori eta programak ez duenez ematen inprimatzeko aukera hori, bakoitzak ahal duen moduan egin beharko du lan hori. Gure kasuan, udan, erdiak pasa euskarazko eskaintzaren aldeko aukera egiten dute. Aldiz, neguan ibiltzen diren ikasleak, asko etorkinak eta dira, eta erdaraz eskatzen dizkigute testak. Edonola ere, aurrerapauso bat da autoeskolentzat baino euskararentzat. Lehen ia ezer ez zegoen gure hizkuntzan eta orain, zertxobait behintzat badugu".


**Jose Luis Asurabarrena**
Autoescuela Loinatz

"En nuestra autoescuela solo una persona intentó realizar el cursillo en euskera, y al final decidió hacerlo en castellano. El problema es que se utiliza un vocabulario muy técnico. Por lo tanto, aunque los alumnos sean euskaldunes y entiendan mejor las explicaciones en euskera, a la hora de realizar los tests prefieren hacerlos en castellano. Por poner un ejemplo, los frenos son "balaztak" en euskera, mucha gente tiene que coger el diccionario, porque no conoce su significado. Por lo demás, las clases, dependiendo del profesor, las impartimos en euskera o en castellano y el examen teórico, además de en euskera, se puede hacer en otros idiomas".


**Xabier Lopetegi**
Lopetegi autoeskola

"Iaz arte ez zegoen kalitatezko materialik eta orain, behintzat, euskarazko materiala erdarazkoa bezain ona da, eta gutxinaka-gutxinaka geroz eta gehiago sartzen joango dela uste dut. Guk, behintzat, ikusi dugu jendeak begi onez ikusten duela eskaintza eta nik animatuko nuke jendea gida-baimena euskaraz ateratzera. Noski, batzuk atzera egiten dute, hitz jakin batzuk erabiltzeko ohitura gutxi dugulako, baina garrantzitsua da bi hizkuntza baldin baditugu, autoeskolak ere bi hizkuntza horiek erabiltzeko aukera ematea".

BAREAK
MERKATARI ELKARTEA

bareak@bareak.eu • www.bareak.eu
tel.: 943 028 100

# "Bareak elkartearen barruan giro beroagoa dago, kanpoan baino"

Denda eta tabernarik gabeko herriak ez litzateke herri izango. Beasainen 400dik gora ditugu. Udalak bere eguneroko jarduera, hirigintza edota kultura politikak diseinatu eta garatzerakoan, oso kontutan hartzen du merkataritzaren garrantzia. Baina gauza on guztiak ahaleginaren ondorio dira. Horretan dabil Bareak, Beasaingo merkataritza elkartea ere.

**Renovarse o morir. Bareak está dispuesta a no perder el tren...**

**Iñaki Ibáñez:** La Asociación existe desde hace muchos años, pero en 2004 los comerciantes y hosteleros volvimos a unirnos para darle un nuevo impulso sin olvidar el trabajo desempeñado por nuestros predecesores.

**Como asociación, ¿qué aporta Bareak al pueblo?**

**Carlos González:** Nuestras aportaciones van encaminadas a que la gente compre en el pueblo. Que el comercio se mantenga vivo es beneficioso para la gente.

**¿Cómo está ahora mismo la cosa?**

**Gema Alarcos:** En comparación con otros municipios, en Beasain se puede decir que se están abriendo tiendas.

**C.G.:** Estamos aguantando la crisis.

**Teniendo en cuenta que sois comerciantes y consumidores, habéis puesto en marcha más de una iniciativa...**

**I.I.:** Así es, como también somos consumidores, cada asociado tiene su tarjeta y nos hacemos descuentos entre nosotros.

**C.G.:** Detrás de la idea está el concepto de solidaridad entre nosotros. Tenemos una tarjeta específica para los asociados, con la que nos beneficiamos todo el año, y otra para nuestros clientes.

**I.I.:** Intentamos que todos los asociados de Bareak se beneficien. La Feria del Vino, por ejemplo, se montó pensando en el sector hostelero.

**C.G.:** Y lo que han hecho es de quitarse la txapela. Los asociados se están implicando.

**En lugar de montar una feria de Outlet, tenéis las ofertas on-line en vuetra web, ¿no es así?**

**I.I.:** Informamos de todas nuestras ofertas a través de Internet. Por ejemplo, ahora mismo, si alguien va a mi pastelería a comprar pasteles, mientres los compra, le invito a café.

**C.G.:** Al final, es como una feria de outlet permanente. Tenemos claro que trabajar con las nuevas tecnologías es una prioridad. En breve, organizaremos un curso de informática para los comerciantes.

**¿Qué nuevas iniciativas tenéis entre manos?**

**I.I.:** Pues, por ejemplo, otorgar un galardón a una persona o entidad que se lo merezca. Las ideas sobran, el problema es saber vender y llegar al público. Por ejemplo, dentro de Agenda 21, se está hablando de dejar el coche aparcado en el garaje. Es decir, si puedes hacer la compra en tu barrio sin coger el coche estás generando menos contaminación y tenemos que empezar a abordar esos aspectos. Otra de las ventajas del pequeño comercio es que genera ahorro. Si vas a la frutería, no compras galletas. En las grandes superficies acabas picando de todo.

**C.G.:** Y está demostrado que si coges diez productos de forma aleatoria, te sale más barato.

**G.A.:** La atención tampoco es la misma.

**C.G.:** La gente lo que más valora es el consejo. Yo regalo consejos. Luego si puedo venderles algo, les vendo, pero el comercio de Beasain regala consejos.





Ezkerretik eskubira: Gema Alarcos, Amets Descanso / Larraitz Urdalleta, Urraki bidaiak / Félix Huizi, Blues Brothers / Iñaki Ibáñez, Pastelería Julki / Carlos González, Infokoste.



**Un concepto en auge es el "comercio al aire libre". ¿Está Beasain preparado urbanísticamente?**

**G.A.:** Faltan aparcamientos. Está Bernedo pero ahí hay una barrera psicológica que hay que romper y es la de las vías de tren.

**I.I.:** Lo que sí tenemos son espacios de ocio cubiertos.

**Un debate ineludible es el tema de horarios.**

**C.G.:** Yo creo que tendríamos que plantear abrir los sábados mañana y tarde para competir en ocio. Como asociación, es una reflexión que hay que poner sobre la mesa.

**Ya contáis con más de 70 asociados.**

**I.I.:** Seremos 75 ó 76. Antes de verano queremos hacer una campaña para atraer a nuevos asociados.

**C.G.:** Medio en serio, medio en broma, solemos decir que dentro de Bareak siempre hace más calor que fuera. Y es la verdad.

**Estáis en negociaciones con el Ayuntamiento. ¿Cuáles son vuestras reivindicaciones?**

**C.G.:** Estamos avanzando. En el terreno político, queremos que el Ayuntamiento se comprometa a nombrar a un concejal de comercio. Un interlocutor político que se ocupe del tema del comercio. Y la reivindicación económica tiene que ver con que necesitamos un espacio físico mayor que con el que contamos, un local en el que podamos presentar la asociación, relacionarnos con los clientes, reunirnos con los técnicos...

**Una de las iniciativas llevadas a cabo con el Ayuntamiento fue la de repartir bonos a los socios del polideportivo. ¿Funcionó?**

**G.A.:** Aquello funcionó, sí.

**C.G.:** Y tenemos la idea de reunirnos con las asociaciones del pueblo para llegar a acuerdos de colaboración.

## www.eskaintzak.bareak.eu

"Hain modan dauden outlet azoken antzerako erabilera eman nahi diogu. Merkatariok eskaintza bereziak on-line jartzen ditugu. Argi daguna da teknologia berrien erabilerak lehentasuna izan behar duela guretzat".

## Aholkuak

"Jendeak gehien eskertzen duena aholkuak ematea da. Beasaingo merkatariok aholkuak oparitzen ditugu, gero zerbait saldu ahal badezakegu, ba hobe".

## Hausnarketa

"Elkarte gisa, ordutegiaren gaia hausnartzen ari gara".

## Elkarteekin harremana

"Herriko elkarteekin elkartu nahi dugu lankidetza akordioetara irits gintezkeen ikusteko".

# Goazen Musika Eskolara

Ojalá pudiera escucharse a través de estas páginas tocar a los alumnos de la Musika Eskola. Desde la guitarra hasta el acordeón, pasando por el clarinete, el violín, la marimba o la flauta, todos los instrumentos son fuente de placer, aunque todo aprendizaje exija ciertas dosis de disciplina y constancia. El privilegio está en tener una oportunidad para ello. Nosotros hemos querido ser testigos y colarnos en varias clases que no dejan indiferente a nadie. Para quienes se animen, el plazo de matrícula para el próximo curso es del 31 de mayo al 11 de junio.

Más información: Tel: 943 028105 musikal@beasain.net



Karlos Alcalá, irakaslea

"Lehenengo klasean ikusten da trebe zein den eta zeinek duen irakurtzeko erraztasuna".



GURA Pop Taldea. Mikel Sacristán, Paula Duque, Xabi Asensio eta Ane Bujanda

"Estamos en proceso de crear nuestras propias canciones. De momento nos conformamos con versiones como *With me*, de Sum 41 o *Break away* de Kelly Klarson".



Maria Luisa Urdangarin

"Tocar el piano era mi vocación frustrada. Animada por mi hija, volví a empezar a aprender a los 62 años. Me relaja".



Aitor Montes

"Ni bateria jotzen ikasi nahi nuela konbetzituta hasi nintzen. Bilbon ikasten dut eta ostiraletan etortzen naiz Musika Eskolara. Talde batean jotzea nahiko nuke".



Nerea Amondarain eta Oihane Mujika

"Guk guztiak animatzen ditugu Musika Eskolara etortzera. Lagun askok denbora eza jartzen dute aitzakitzat, baina ondo pasatzen da".



Mikel Muñoz

"Trikitixa indarrean? Kepa Junkera-eta, ari dira zabaltzen. Guk taldean jotzen dugu. Lehiaketetara ere joaten gara".



Cristina Barahona, Amaia Hernández eta Maribel Botanz, irakaslea

Amaia: "Nik obra akustikoak ditut gustukuen. Leo Browerren estudioak edo Sinple Plan taldearen abestiak. Gitarra aukeratu nuen aitak behartuta baina orain inork esan gabe etortzen naiz klaseetara".



Amaia Arostegi irakaslea, Eneritz Aldanondorekin

Amaia: "Ikasleak askotan ez dira konturatzen zer nolako zortea duten hona etortzeko aukerarekin".
Eneritz: "Etorri nahi nuela eta etorri nahi nuela, egoskorrean jarri nintzen eta azkenean gurasoek izena eman zuten".



Miren Matias, Xabier Sarasola irakaslearekin

Miren: "Etxean musika hurbiletik bizi izan dugu. Amak abesbatzan abesten du eta pianoa ikasten ibilia da".
Xabier: "Musika bidez, diziplina eta kontzentrazioa lantzen dituzte".



Aitor Ruiz, Aitor Mitxelena irakaslearekin

Aitor Mitxelena: "Klarinetearen zailtasuna behatzak ondo jartzean eta zuloak ondo tapatzean datza. Aukera asko ematen ditu, orkestran, bandan, jazz taldeetan... soinua oso goxoa da".



Andres Oiarbide

"Musika Eskolara joatea oso atsegina egiten zait. Musikarekiko zaletasuna gauzatzeko bide bat da".

## Loinatz jaiak 2010

# Gainean ditugu festak!

Urtebete zain egon ostean, ate-joka ditugu herriko jaiak. Aurtengoek ere hamaika pasadizo utziko dizkigute. Guk aurrerapen bat bildu nahi izan dugu orri hauetan aurtengo protagonistei hitza emanez.

## Mujika anaien musika, sukalde txokotik eszenatokira

Si con su primera maqueta lograron clasificarse en la final del concurso de maquetas de Euskadi Gaztea y ser seleccionados para el “Villa de Bilbao”, seguro que con su primer disco tienen un largo recorrido por los diversos escenarios. Los beasaindarras Xabier, Iñigo y Gotzon Mujika ultiman los detalles de su trabajo, como elegir la carátula que acompañará al título del mismo:“Copenhague”. El trío presentará su primer disco el día 14 en Bideluze Plaza de Beasain, a partir de las 23.30h.




Xabier Mujika
KEA taldeko abeslaria

**2007an atera zenuten zuen lehenengo maketa eta ikusten da lanean jarraitu duzuela estraineko diskoa kaleratu arte.**
Hala da. Maketa harekin nahiko ondo ibili ginen, bai. Disko honetan 9 abesti sartu ditugu eta esango nuke, pop-rockaren barruan, beharbada lan modernoagoak edo elektrikoagoak direla, nahiz eta nahikoa lasaiak izan. Nolabait esateko, gugan eragin dezaketen musikariak dira Foo fighters, Neil Young, Ben Harper edota Muse, eta euskaldunen artean, ba, Anari eta Dut.

**Bitxia da gero hiru anaik osatzea taldea. Txikitatik bizi izan duzue musika modu berezian etxean edo...?**
Txikitatik hirurok ibili ginen Musika Eskolan zenbait tresna ikasten eta poliki-poliki hainbat taldetan sartzen joan ginen; nik nire taldea nuen, anaiak beste batzuetan ibili ziren... eta aspertuta geundenean, etxean hirurok batera hasten ginen entseatzen eta hala, maketa ateratzea lortu genuen arte.

**Eta diskoa iritsi da. Asko eztabaidatu behar izan duzue?**
Tira, hiruron hezkuntza musikala antzerakoa izan da, beraz, esan daiteke gustuetan bat etortzen gatozela. Guretzat musika zaletasuna da baina noski, diskoari denbora asko eskaini diogu nahiz eta presarik gabe hartu.

**Beasaingo aurkezpena eta gero, kontzertu gehiago emateko asmorik baduzue?**
Bai. Hori da nahi duguna. Kontzertu onak eman eta errodajea egitea. Ikusiko dugu jendeari nola iristen zaion diskoa. Talde berri batentzat zaila da jendearengana iristea. Lehen CD bat erosi eta bueltaka harekin ibiltzen ginen; orain, ordea, bonbardaketa musikala izugarria da eta musikari eskaintzen zaion denbora aldatu egin da.

**Nola ikusten dituzu oro har Euskal Herriko musika taldeak?**
Ikusten dudana da talde asko daudela gutxi ateratzen direnak. Ez dutenak zabaltzea lortzen. Gero, beti hor goian daudenak ere badaude, Berri Txarrak, Sorkun...

## Pilotakada herrikoiak



Ezkerretik eskubira: Mikel Larrañaga, Jon Ander Esnaola, Asier Larrañaga, Iban Zabaleta, Antton Aranburu, Unai Amundarain eta Koldo Agirre.

### Koldo Agirre: “Nuestra pretensión es dar un impulso a la pelota”

Festei begira, Beasaingo lagun talde batek pilota txapelketa herrikoia antolatzeko ahalegina egin du aurten, eta arrakasta izaten ari da. Helburua herrian pilota zaletasuna berpiztea da, Koldo Agirrek dioen moduan. “Pilotan ibilitakoak batzuk, pilota gustatzen zaienak beste batzuk... elkartu ginen eta txapelketa bat antolatzea pentsatu genuen federatu gabeko jendeari zuzendua. Aurten lehendabiziko aldiz egin dugu eta 28 bikotek hartu dutenez parte, pozik gaude”. Aurten probatzea erabaki dute eta ondo ateratzen bada, hurrengoetan ere animatuko direlakoan dago Agirre.
Jendearen erantzuna beroa izan da. “Giro ona sortu da partiduetan. Ehun bat lagun joan ohi dira ikustera eta hori eskertu nahiko nieke bai partaideei eta bai ikusleei”.
Adin ezberdinetako jendearen topagune ere bihurtu da Gernika pasealekuko frontoia. Izan ere, 15 urtetik berrogeitaka artekoek hartu dute parte.
Azken txanpa festetan izango da. Ostiralean final erdiak jokatuko dira eta larunbatean finalak.
Partiduak ostiraletan 19:00etatik aurrera jokatzen dira eta igandeetan, berriz, 16:00etatik aurrera.



Partiduetako bat jokatzen.

## Beasaingo musikariei gorazarre



Pello Irizar eta Mikel Olano,
Musikariak

Pello Irizar y Mikel Olano han arreglado las obras “Beasain jaietan” y “Aufa!” de Ramon Modesto Aranburu e Ignacio Bereciartua respectivamente, para que la tamborrada de este año tenga un sabor beasaindarra.



”Gracias al trabajo de Zufiaurre, nos dimos cuenta que había material suficiente para arreglar y completar un repertorio propio con obras de músicos beasaindarras”

**Nolatan hasi zineten moldaketa lanekin?**
**Pello:** Duela bizpahiru urte, Josetxo Zufiaurrek Beasaingo konpositoreek egindako obren eta moldaketen bilduma atera zuen. Tartean, Ramon Modesto Aranburu agertzen zen, gure maisua izandakoa. Ikusi genuen bazeudela hainbat obra danborradarako moldatzeko aproposak zirenak, eta pentsatu genuen poliki-poliki danborradari kutsu beasaindarra ematea polita litzatekeela. Hala hasi ginen.

**Mikel:** Orain arte, Donostiako daborradan entzun ohi diren obrak jotzen ziren eta Beasaingo martxa. Jendeari ilusioa berpizteko asmoz egin dugu, zeren danborrada apur bat gainbehera zihoala iruditzen zitzaigun.

**Hurrengo urteetarako ere baduzue lana, orduan.**
**Mikel:** Gure helburua da lauzpabost urtetan errepertorio oso bat osatzea. Urtean pare bat obra sartu nahiko genituzke. Aurten apustu handia egin dugu, zeren ez da erraza jendea entseguetara joanaraztea... inork ez du sekulako maila lortzea eskatzen baina jardun egin behar da. Halere, elkarteetan ari dira bi obra horiek entseatzen eta lana egiten. Jakinmina sortu da, hori nabaritzen da kalean... Begiratu duguna da erraz jotzeko moduko moldaketak izatea.

**“Beasain jaietan” eta “Aufa!” entzungo dira, beraz, plazan.**
**Pello:** Aranbururen “Beasain jaietan” txistu bandarako zegoen idatzita eta banda osorako moldatu dugu, baita danbor eta kupelentzat ere. “Aufa!”, berriz, guk “Kabila” izenarekin ezagutzen genuen. Tolosako elkarte batek azken izen horrekin jotzen zuen eta Zufiaurreren lanari esker, ikusi genuen Beasaindar musikari batena zela eta hark jarritako izen orijinala “Aufa!” dela. Tolosan ihauterietan jotzen dute, eta baita Donostiako danborradan ere. Guk egileak jarritako izena aldarrikatu nahi dugu.

**Beste nobedaderen bat ere bada...**
**Pello:** Bai, bi pieza hauek eta “Beasaingo Martxa” Musika Eskolako bandarekin eta txistulariekin joko ditugu aurten.

## Sociedad Beti-Bizi

# Aurtengo "Beasain jaietan" aldizkaria labetik ateratzeko prest




Beasain Jaietan aldizkariaren azken bi aleak.

**Sobre la mesa que comparten en la oficina de la sociedad Juanjo Ruiz, Antonio Albiz, Jesús Mari Sanpedro y Manolo Fernández hay un taco de artículos escritos por diferentes plumas que se van apilando a la espera de salir a la luz. Ninguno del cuarteto es periodista ni cronista. Tampoco tienen a redactores o fotógrafos en nómina, pero son el mejor ejemplo de que con voluntad y compromiso se llevan a cabo los mejores proyectos. La revista, "Beasain jaietan", que nació en 1922, volverá a salir a la calle, esta vez, con la participación, entre otros, de la beasaindarra Aitziber Saldías que acaba de presentar "Quenna" y que escribe sobre la bajada de Mari; de Tomás Salazar que nos descubrirá el valle de Araotz, de Javier Elzo, o de Francisco Olea que, aunque resida en Madrid, nunca se olvida de mandar unas líneas a su pueblo natal y aliviar, así, su nostalgia.**

**Beti-Bizi elkartean** ez dira besoak gurutzatuta egotekoak. Hilabete batzuetan buru-belarri San Silbestre lasterketa antolatzen ibiltzen dira, eta besteetan, berriz, "Beasain Jaietan" aldizkariaren argitalpena zuzentzen. Egun gutxi falta dira kalean izateko. Berez, lehenengo alea 1922koa da. Urte batzuetan huts egin ostean, Beti-Bizi elkarteak 1979an hartu zuen bere gain aldizkaria ateratzearen ardura eta fin-fin heldu dio hartutako konpromisoari. "Jendeak eskertzen du egiten dugun ahalegina. Izan dira 2.200 ale saldutako urteak ere. Beti kontatzen dugu pasadizo gisa gutxien saldutako urtea Juan Carlos printzea eta Letizia ezkondu zirenekoa dela. Salmentak ezkontzarekin kointziditu zuen eta gainera, sekulako euri jasa bota zuen, eta jendea etxean geratu zen. 400 edo 500 ale gutxiago banatu ziren. Gero, jendeak esaten du ez dela monarkikoa eta ez duela telebista ikusten...".

Aurten, aurrekoetan bezala, 7 eurotan eskuratu ahal izango da. "Udalaren laguntzarekin eta iragarkietatik eta salmentetatik jasotakoarekin finantziatzen da argitalpena. Guk kontuak borobiltzea besterik ez dugu eskatzen. Gure filosofia ez da inoren kontura dirua lortzea".

Aurten, dagoeneko, 30 artikulutik gora dituzte. "Pare bat hilabete aurretik, beldurtuta egoten gara ez ote den bat bera ere iritsiko pentsatuz, baina gero beti heltzen dira".

Lanarekin kritikoak izaten ere badakite. "Jakin badakigu aldaketa bat eskatzen duela aldizkariak. Guk kolorea sartu genion baina bada ordua beste zerbait egiteko. Gu iradokizunak jasotzeko prest gaude".

Aldizkarian parte hartu dutenekin afaria egin ohi dute eta topagunea aprobetxatzen dute "Urrezko barea" entregatzeko herriaren alde zerbait egin duen pertsona edo erakundeari. Aurten nori tokatuko zaion pagotxa sekretua da oraindik.

### Limacos de Oro

- 1992 – Don Segundo Dorronsoro
- 1993 – Carlos Arguiñano
- 1994 – José Martínez Arroyo
- 1995 – Colectivo de la empresa CAF
- 1996 – Cesáreo Ugarte
- 1997 – Isabel Olano
- 1998 – Donantes de Sangre
- 2000 – Josetxo Zufiaurre
- 2002 – Sociedad Deportiva Beasain
- 2004 – Coral Loinatz
- 2006 – Sociedad de montaña Aitzgorri
- 2008 – Hermanos de La Salle e Hijas de la Caridad

> "Aurten, dagoeneko, 30 artikulutik gora ditugu. Pare bat hilabete aurretik, beldurtuta egoten gara ez dela bat bera ere iritsiko pentsatuz, baina gero beti heltzen dira. Bada urteroko konpromisoa hartua duen jendea".



Manolo Fernández, Jesús Mari Sanpedro, Juanjo Ruiz y Antonio Albiz.



Loinatz jaiak 2010



**Ikutz Garmendia: "Arratsaldeko erromeria informala izango da, kaleko jendea dantzan jarri nahi dugu"**

# X. Dantza Topaketak, Ostadar taldearen eskutik



Duela 10 urte hasi zen Ostadar dantza taldea Dantza Topaketak antolatzen. "Festetan –dio Ikutz Garmendiak– beti dantza egiten genuen baina ikusi genuen guretzat ez zirela egunik onenak. Gaztetan parranda egiten genuelako eta geroago, beti, edo txoznetan edo han eta hemen, lana egitea tokatzen zitzaigulako. Horrela, kanpoko dantza taldeak gonbidatzea pentsatu genuen eta ordutik hori egin izan dugu". Aurten, X. ekitaldia izaki, "gure asmoa hamar talde ekartzea zen" baina ezinezkoa suertatu zaie. "Ez dugu aurrekonturik horretarako, beraz, aurreko aldietan bezala, lauzpabost talde etorriko dira".

Urtero legez, erdiak Igartza auzoan hasiko dira dantzan eta beste erdiak Porteria inguruan, San Martinen bueltan elkartuko diren arte, gero elkarrekin bazkaltzeko.

Aurten, badute berrikuntza bat. Aurreko urteetan, arratsaldez, goizean parte hartu duten dantza taldeek ikuskizun bat eskaini ohi dute. Aurten, ordea, plaza obratan dagoela-eta, erromeria antolatu dute Bideluze plazan. "Arrabots taldeak joko du, Tapia eta Leturiarekin ibilitako musikariek osatutako talde berri bat da eta erromeria herrikoia egin nahi dugu, kaleko jendea dantzara animatzea, alegia. Eta Goierriko gainontzeko dantza taldeak ere gonbidatuko ditugu". Euskal Herriko dantza ezberdinak ezagutzeko aukera borobila izango da.

## Andariak

# Familiatik datorren tradizioa

**Abarizketa (Abaizketa), Arrieta (Arritta), Otaño eta beste hainbat baserri andari tradizioagatik dira ezagunak, besteak beste. Ohoretzat dute euren aurrekoek hartutako konpromisoa eta belaunaldiz belaunaldi fin erantzun dute.**



**Justo Imaz**

"Tradizioa goraka doa. 80ko eta 90eko hamarkadetan ez zen jenderik ikusten. Bakarrik egiten genuen ibilbidea. Pentsa, atseden hartzeko makilak eramaten dituzte gazte batzuk eta hartarako ere mutilik ezin bilatuz ibiltzen ginen. Ni duela 46 urte hasi nintzen".



**Jose Agustin Jauregi**

"Lau buelta ematen zaizkio Beasaingo banderari, bai Parrokian eta bai ermitan. Lau alditan, lau buelta".



**Iñaki Mujika**

"Nik 41 urte daramatzat Loinazko San Martin santuaren andari. Aita zena 39 aldiz atera zen. Aurten utziko diot, 100 urte betetzen baitira gure familia andari hasi zenetik. Semeak hartuko dit errelevoa. Loinazko San Martin eramaten dugunok jantzi bereziak eramaten dugugu soinean.



Ibilbidearen zati ezberdinak.





